




Vendredi 17 octobre 2008

herri kolore UN SUPPLÉMENT DU JOURNAL DU PAYS BASQUE

EDITE PAR BAIGURA COMMUNICATION SARL • 8, ZA MARTINZAHARENIA 64122 URRUNA-URRUGNE TEL: 0[033]559460250 • REDACTRICE EN CHEF: GOIZEDER TABERNA

au cœur
du pays basque



NAFARROA
OINEZ 2008 :
IRUÑEA GAINDI

SOMMAIRE

ENTRETIEN

“Euskalzale guzien
laguntza behar
dugu”

Unai ARELLANO



Pages II-III

NAFARROA OINEZ :
Une fête qui
donne rendez-
vous tous les ans

Pages III

L'ikastola Jaso s'ouvre
aux langues et pas qu'à
l'euskara

Page IV

Publicité

le journal

du Pays Basque
Euskal Herriko Kazeta

*l'information indépendante
informazio librea*

PARTIDAREN BIGARREN ZATIA JOKATUKO DUGU, ETA IRABAZTEKO EUSKALZALE GUZIEN LAGUNTZA BEHAR DUGU»

Unai Arellano, Jaso ikastolako zuzendaria

Zainetan baina pozik da Unai Arellano, Jaso ikastolako zuzendaria, igandeko bestaren bezperan. Urteko lan osoa gibelean da eta orainegun horretan eguzkiak indarrez jo dezan baizik ez dute desio. 1999. urtean gertatukoaren ma-

mua badute gainean, baina aurtengo iragarpeneak Oinezen alde daude. Hala ere, euria egiten badu alternatiba pentsatu dute, festak aitzina egin dezan.

Ate joka dugu jadanik Nafarroa Oinez. Nola igarotzen ari zarete azken egun hauek?

Zainetan gira biziki eta eguna iristeko irrikan ere bai. 18 hilabete lanean buru-belerri eman ondotik, egun horretan dena ontsa ateratzea nahiko genuke Iruñekoek eta kanpotik etorriko direnek egun polita izan dezaten.

Eguna ilusio handiz espero dugu denek, baina azkena urte oparoa izan da. Baloratu dituzu eginiko jarduera guziak? Gu, ardura, ez gara Nafarroa Oinez egunaz mintzo, Oinez urteaz baizik. Guretzat eguna bera garrantzitsua izanik, urtean zeharreko aktibitate guziak bizi bereziak izan dira. Aurten Nafarroa Oinez Iruñean izanik, gure hiriari jardueraz beteriko urtea eman nahi izan diogu eta horretan aritu gara. Euskara ikastolatik atera nahi genuen Iruñeko karriketan barna ibilt-

zera. Hori egiteko, noski, guraso, langile, ikasle, ikasle ohi eta Jaso ikastolako lagunen laguntza behar-beharrezkoa izan zaiagu eta horretan ez dugu batere kexurik. Bertze behin erakutsi dugu ikastolen berezitasunik nabarmenena elkarlana dela eta gure kasuan horri esker jo dugu Oinez urtearekin aitzina.

Kasik hamar urte bete dira Jaso ikastolak azken Oinez egin zueñetik. Orduan euria oztopo izan zen helburuak erabat betetzeko, zein finkatu duzue aurten? 99an gauzatu genuen Nafarroa Oinez horrekin ez genituen orduan finkaturiko helburuak bete. Urte horretan ikastola berria eraiki genuen eta ikastolako gurasoak oraino ari dira hori ordaintzen, beraz, hori dugu aurten ere helburuetako bat. Bestetik, bederatzi urte hauetan,

zorionez, ikastolak aitzina egindu eta behar berriak sortu zaizkigu. Kanpoko gunearren zati bat estali dugu eta erabilera anitzetarako gela bat egin dugu eta bi obra horiek ordaintzeko ere behar dugu laguntza. Dena den, helburu ekonomikoetatik landa, komunikazio helburuak arras garrantzitsuak izan dira aurten gure iritziz. Zentzu horretan, Nafarroa Oinez honek ikastolen proiektua gizarteratzeko aukera eman digu, eta, nola ez, euskararen erabilera eragiteko. Horregatik gure aurtengo goiburua, "Aterea eza zu mihi". Jendea zirikatu nahi izan dugu goiburu horrekin, euskara Iruñeko hainbat txokotara eraman nahi izan dugu, euskararen erabilera suspertzeko oraino gauza anitz egin daitetzeela eta eginen ditugula us-te dugulako.



Publicité

Langile, zuk ere
ATERA EZAZU MIHIA
hizkuntza gozoan...

NAFARROA OINEZ 08
Jaso ikastola Iruñea
2008ko urriaren 19a



**URRIAK 19
IRUÑEA**

NAFARROA OINEZ 08
euskarra ofiziala Euskal Herri osoan

HITZETATIK EKINTZETARA

Euskal Herriak berezko hezkuntza sistema behar du



Erdzka gelditu zen 1999ko edizioa, zer eginen duzue euria berriz ari bada? Hartu duzue kasu horretarako neurrik?

Orain arte ditugun datuen araberan, urriaren 19an eguraldi ona izanen dugu Iruñean eta, horrela ez bada, "B plana" pret dugu. Izan ere, 2. gunean (Miluze guinea) 2.000 metro karratuko xapitoa ezarriko dugu eta barnean jende andana sartuko da. Erran beharra da, bestalde, ibilbidean zehar ez dugula lokatzik izanen, gudrona ez dena pista delako. Bertze 5 guneetan ere ez dugu arazorik izanen. Beraz, nahiz eta euria egin etxeko tenizetan ibiltzen ahalko da jendea.

1999an gertatutakoak kalte handia eragin zizuen, uste duzue horrek jendea nolabait pusatuko duela aurten bere laguntza eskaintza?

Hainbeste hilabetetan lana egin ondotik zinez gogorra da euriak eguna izorratzea. Jendeak kontuan izan behar du lan egin duten guziek beren borondatez lan egin dutela, beren ohiko lanari aurten Nafarroa Oinez lana gehitu diote anitzek eta 99an ere horrela izan zen. Oinez urtea biziki intentsoa da denendakot eta ilusio handiz lan egiten da. 99ko esperientzia gogorra izan bazeen ere, bederatzi urte geroago hemen gaude berriro matraka ematen Oinez urtearen aurkezpenean erran genuen bezala, partidaren bigarren zatia jokatzeo prest, eta partida irabazteko euskalzaleen laguntza beharrezkoa dugu, bai horixe. Segur gara hamaika euskaltzale izañen ditugula partida irabazteko kantu eta dantzezin laguntzen.

Jaso Ikastolako eraikina gaztea da oraino, zeintzuk dira egungo behar nagusiak?

Jaso Ikastola 140 ikaslerekin hasi zen 1980an eta gaur egun 700 ikasle ditugu. Ikastola berrian arras gustuan gara, baina argi da izen emaiteak gora joan ahala behar berriak sortzen direla. Errate baterako, euria egiten duen egunetarako (eta Iruñean anitz dira) kanpoko guinean estalpea behar genuen. Eta erabilera anitzeko aretoa ere behar genuen bigarren mailako ikasleek kirolegitzat erabiltze-

ko, antzerkia egiteko, bilkura handiak egiteko...

Zein berrikuntza prestatu duzue eta zeri emanen diozue garrantzirik handiena egitarauaren barnean?

Ez da biziki politik guk erratea, baina arras egitarau interesgarria dela uste dugu. Hasteko, aipatutako bi azpi-gune horietan berrikuntzak sartu ditugu. Bat Hip-Hop xokoa izanen da eta bestea Jazz xokoa. Lehen xokoan, raparen zaleak, graffitiien zaleak, breakdance erakustaldia, Djak eta abar izanen ditugu, eta bigarrenean, Iruñeko eta Nafarroako jazz taldeekin gozatzeko parada. Sanduzelaiko gunea ere aski berezia izanen da: Iruñean dugun kultur aniztasunaren miraila, txalaparta, son kubatarra, capoeira, perkusio afrikarra, musika boliviarrak, Korsikatik eta Galestik jiniko bitalde eta, logikoa denez, gure Txutxin Ibañez "Ciudad de Mexiko" mariachiak. Eta beste guneetan euskal taldeak, nola ez, Betagarri, Kerobia, Tapia eta Leturia, Hesian, Gozategi, Esne Beltza... Azpimarratu nahiko genuke Irundik etortzen diren trenek ordutegi bereziak izanen dituztela. Beraz, iparraldeko ere, autoz jiteko aitzakariak ez da! Eta, aipatu behar da, godaleta guziak berrerabilgarriak izanen direla, beraz, kasu txartelak hartzeko orduan.

Urtebeteko bide luzean jaso ahal duzue beste eragile batzuen laguntzarik?

Bai horixe. Jasotako laguntza-rekin biziki pozik gaude eta,

hemen denak aipatzea ezinezko denez, erakunde publiko, pribatu eta banan-banan laguntzera etorri diren guziei ESKER MILA!

Azken deialdia balitz, zer erranen zenioke jendeari Iruñera etortzeko?

Jaso Ikastolak ilusio handiz prestatu du Nafarroako ikasto-

len festa eta Nafarroako eta Euskal Herriko euskaltzale guztiz-guztiak gonbidaturik daude gurekin egun zoragarria pasatzera.

Heldu den urterako Etxarri-Aranatzeko Andramari Ikastolak hartuko du lekukoa, zer opa diozue?

Jadanik lanean hasiak dira

han eta segur naiz sakandarrek lan pollita eginen dutela. Badakite Jaso Ikastola laguntzeko prest egonen dela eta hoberena opa diegula. Beren lehen Oinez egin zutelarik euria izan zuten, bigarrenean haizea eta hirugarrenean eguzkiaizanen dute. Heldu den urtean Etxarrin elkar iku-siko dugu.

NAFARROA OINEZ : UNE POINTE D'HISTOIRE

Nafarroa Oinez, est par définition, la grande fête de l'euskara et des ikastola en Navarre. C'est une journée où les Navarraises et Navarrais s'engagent en faveur de notre langue et de notre culture nationale. La première édition de Nafarroa Oinez eut lieu en 1981, organisée par l'ikastola Aritz de Altsasu. Depuis la première édition, d'autres ikastola ont repris le flambeau, trouvant dans cette fête une aide précieuse pour se consolider. En 1998, c'est à Zangozako ikastola que revint la charge et l'honneur d'organiser la fête célébrée le 18 octobre sous le slogan "Ametsa Eraikiz" (en construisant le rêve). Le 18 octobre 1999, Nafarroa Oinez eut lieu à Iruñea, capitale du vieux royaume et du Pays Basque tout entier, sous la devise "Jaso dezagun euskara" (hissons l'euskara), pour ce qui fut un hommage à l'ikastola Francisco de Jaso. Un an plus tard, l'ikastola San Fermin mettra tout son cœur et son enthousiasme dans l'organisation de la fête. C'est le 21 octobre 2001 que Oinez inaugurerait le nouveau siècle à Lodosa et Sartaguda en prenant comme slogan "Herria da gorputza, hizkuntza bihotza" (Le peuple est le corps, la langue le cœur).

Tutera eut le privilège de recevoir la grande fête en faveur de l'euskara en 2002. C'était un 20 octobre, et l'ikastola Argia

réussissait à passer outre toutes les frontières avec son "Muga guzti gainetik" (au-dessus de toutes les frontières). En 2003, l'hôte fut l'ikastola Arangoiti de Irúnberri, où des dizaines de milliers de personnes se rassemblèrent faisant honneur au slogan "Harritz herri, Irúnberri". En 2004, l'organisatrice fut l'ikastola Lizarra, dans la cité du même nom. L'année suivante, en 2005, la journée ludique et pleine de revendications retourna à Altsasu, où une foule dense s'empara des rues de la cité en soutien à l'ikastola Iñigo Aritz. Bera fut le lieu choisi pour le Oinez 2006. C'était le 15 octobre, et l'organisatrice fut l'ikastola Labiaga. Enfin, l'année dernière, c'est l'ikastola Erentzun de Biana qui organisa la fête sous le slogan "Giltza daukagu" (Nous avons la clef). C'est à travers cette longue marche que nous arrivons cette année au Nafarroa Oinez organisé par l'ikastola Jaso, qui a été pour la deuxième fois chargée d'accueillir les milliers d'euskalzale qui se donneront rendez-vous pour remplir les rues et autres places de Iruñea. Il ne reste plus qu'à prendre son mal en patience durant douze mois pour encore une fois manifester en faveur de notre langue. Le Nafarroa Oinez 2009 aura lieu à Etxarri-Aranatz, et l'organisation sera assurée par l'ikastola Andra Mari.

Publicité



mihia jan dizu katuak?

bada, atera ezazu!

IKASI EUSKARA | www.aek.org | 902 362 294

aek
nafarroa

Publicité



"Euskara bizirik"

Portuetxe Bidea, 23 · 20018 · DONOSTIA
Tel. 943 02 01 30 · Fax 943 02 01 31
gipuzkoa@euskoalkartasuna.org

GIPUZKOA

Plaza del Castillo, 49-1º · 31001 · IRUÑA
Tel. 948 22 06 91 · Fax 948 22 17 34
nafarroa@euskoalkartasuna.org

ARABA

San Prudentzio, 3 · 01005 · GASTEIZ
Tel. 945 23 27 62 · Fax 945 23 29 53
araba@euskoalkartasuna.org

BIZKAIA

Areatza, 2-3 · 48005 · BILBAO
Tel. 94 416 10 33 · Fax 94 415 62 94
bizkaia@euskoalkartasuna.org

IPARRALDE

34 Rue Panneau · 64100 · BAIONA
Tel. 05 59 25 50 98 · Fax 05 59 25 50 98
iparralde@euskoalkartasuna.org

Jagoba Manterola



L'ikastola Jaso fait le pari du multilinguisme

L'IKASTOLA JASO, OU LE PARI DU MULTILINGUISME

L'ikastola, en plus de l'offre en euskara, offre la possibilité d'apprendre quatre langues

Voilà vingt ans que l'ikastola Jaso est née. Crée par la volonté de plusieurs parents d'élèves, ce sont ces mêmes parents qui gèrent l'établissement par le biais d'une coopérative. Contrairement à ses débuts, l'ikastola reçoit désormais une dotation de la part du gouvernement foral de Navarre afin d'assurer le fonctionnement de la structure, tout en gardant l'autonomie sur le modèle éducatif prôné. Ainsi, l'ikastola se base sur la démocratie et la pluralité au moment de décider l'enseignement de certaines matières optionnelles dans l'Etat espagnol, comme la religion ou la politique.

La langue utilisée lors des enseignements et de la vie de l'ikastola est, bien sûr, l'euskara. Cependant, Jaso fait le pari

résolu du multilinguisme ; aujourd'hui quatre langues sont enseignées : l'euskara, l'espagnol, le français et l'anglais. L'ikastola dispose d'ailleurs d'un projet pédagogique propre en ce qui concerne l'enseignement des dites langues : "afin qu'elles soient enseignées et apprises en cohérence", aux dires des responsables de l'ikastola. Ainsi, les enfants commencent à apprendre l'anglais dès l'âge de quatre ans, c'est-à-dire en maternelle. Les

élèves continuent à utiliser au quotidien l'anglais tout au long de leur scolarité dans l'ikastola, qui se finit à l'âge de 16 ans. Cette utilisation va au-delà de la matière spécifique d'anglais, et elle est notamment utilisée en histoire-géographie. En ce qui concerne le français, il est une langue optionnelle tout au long du secondaire.

Pour enseigner ces deux langues étrangères, l'établissement utilise le matériel pédagogique élaboré par la Fédération des Ikastola, qui regroupe les ikastola des sept provinces du Pays Basque ; Eleanitz-English et Eleanitz-Français.

Toutefois, l'ikastola Jaso se veut proche de son environnement, et encourage l'utilisation de l'euskara, au sein de l'établissement, bien sûr, mais surtout au-delà : "nous croyons qu'il est possible de vivre en euskara dans les grandes cités", assure-t-on depuis Jaso.

Les élèves ont la possibilité d'effectuer leur scolarité dans l'ikastola dès l'âge de deux ans, et jusqu'à 16 ans. Chaque niveau est constitué de deux classes, d'environ 25 élèves. Au total, ce sont près de 700 enfants et adolescents qui sont scolarisés au sein de l'ikastola Jaso.

Un nouveau bâtiment

La restauration est assurée par la cantine de l'ikastola, qui

jouit d'un succès évident, tous les élèves sans exception déjeunant en son sein. De plus, la cantine propose un suivi personnalisé pour les élèves qui ont besoin d'un menu spécifique, comme les diabétiques. L'ikastola dispose aussi d'un service d'autocars. Le personnel enseignant est constitué de titulaires, ce qui donne une stabilité au personnel, qui est caractérisé, selon les responsables de Jaso par sa "motivation" et sa "compétence". En effet, les enseignants ne se montrent jamais frileux devant les nouveautés pédagogiques que l'ikastola expérimente souvent. Enfin, Jaso propose un soutien scolaire personnalisé pour les élèves en difficultés, ainsi qu'un service de psychopédagogie et d'orientation.

Le bâtiment qui abrite l'ikastola est de construction récente, et dispose des outils nécessaires aux activités en intérieur et extérieur. Sa superficie est de 7?500 mètres carrés, et on y trouve toutes sortes de fonctionnalités : laboratoire, salle de travail technologique, salles informatiques, de musiques et d'arts plastiques, centre de documentation, cantine, gymnase...

Deuxième Nafarroa Oinez

Quand l'ikastola Jaso avait inauguré son bâtiment actuel,

en 1999, elle organisa la fête Nafarroa Oinez de la même année pour pouvoir faire face au coût financier conséquent d'un tel investissement. Or, la pluie s'invita à la fête, ce qui avait gâché l'effort de l'ikastola de Iruña. Ainsi, les 100?000 personnes attendues ne furent pas toutes présentes au rendez-vous, et même si les organisateurs s'efforcèrent de maintenir toutes les animations prévues, beaucoup durent être annulées. La situation était telle, qu'un compte-courant fut ouvert afin de recueillir les dons des euskalzale.

Neuf années se sont écoulées depuis, et l'ikastola, en plus de devoir financer la construction du nouveau bâtiment, se retrouve devant un défi plus grand. Des 120 élèves des débuts, l'ikastola en accueille aujourd'hui plus de 700. Les bâtiments ont dû être réaménagés, notamment en couvrant l'espace extérieur afin de pouvoir organiser des manifestations même par temps de pluie, et en construisant une salle polyvalente. C'est pour répondre à ces nouveaux besoins, et boucler le financement du bâtiment construit en 1999 que l'ikastola Jaso organise le Nafarroa Oinez 2?009. Une occasion aussi de mettre l'euskara au centre de la capitale Iruña pour une journée.

Publicité

Mintza

HIZKINTZA BAT EZ DA GALTZEN EZ DAKITENEK IKASTEN EZ DUTELAKO. DAKITENEK ERABILTZEN EZ DUTELAKO BAZIK.

EUSKARAZKO ASTEKARIA
Nouveau hebdomadaire en langue basque
OSTEGUNERO EUSKAL HERRIKO KAZETAREKIN

le journal

Partaidezka:

Informazio Libre - L'information indépendante